EAJ PNV

jakin eta egin
saber hacer

Mungia
mungia
mungia
Mungia
mungia

# ONENA EMATEKO GARAIA
# EL MOMENTO DE DAR LO MEJOR

*Herri ordezkari izateko ardura, gure udalerriari eta gure auzo-lagun guztiei zerbitzua eta laguntasuna emoteko alditzat hartzen dogunok egunez eguneko jarduneanagindutakoa betetzeko lanari ekiten deutsogu, legegintzaldia hasi eta amaitzen dan arte.*

*Orain dala lau urte, mungiar guztiekaz hartu genduan ilusinoz lan egiteko eta udalerri bizia egiteko konpromisoa, bizitza kalidadea Mungia osatzen dogun pertsona guztiontzako errealidadea izan daiten.*

*Herri batua, auzo sare eta hartu-emonak sortuta, ekimenetanparte hartzen dauana; bere nortasunaz harro dagoan herria, bere hizkuntzaz, kulturaz eta izaera bereziaz harro dagoana. Pentsamendu eta sentimendu aniztasunetik aberastasuna sortzendauan herria; lan egiteko, gozatzeko eta bizitzeko herria.*

*Oraina bizi dauan herria, baina bere ahalmen eta gaitasunak etorkizunari begira garatzen dauzana. Holan ikusi eta sentidu dogu EAJ-PNVrensiglen babespean Udal Gobernu Taldearen aldetik eta gure auzo-lagun guztien zerbitzura, gure onena emoten saiatu garenok. Apaltasun eta harrotasunez egin dogu, akatsak egin doguz, baina ondo eginak be bai. Baina, gauza guztien ganetik, lau urteotan Mungiaherri hobea egiteko lan zintzoa egiteko helburua izan dogu. Ohorea izan da ardura hori geureganatu izana.*

***Izaskun Uriagereka***



Quienes asumimos nuestra responsabilidad como representantes públicos como una etapa de servicio a nuestro municipio y a nuestros vecinos y vecinas, creemos firmemente y trabajamos día a día con la convicción de que, desde el primero hasta el último día de la legislatura, son días de trabajo y compromiso con la palabra dada.

Hace cuatro años nos comprometimos con todas y todos los mungiarras a trabajar con tesón e ilusión por seguir haciendo de nuestro municipio un pueblo vivo y dinámico, donde la calidad de vida sea una percepción cierta para todas las personas que conformamos Mungia.

Un pueblo cohesionado, donde nos implicamos y participamos, creando redes y relaciones vecinales.: Un pueblo orgulloso de sus señas de identidad, de su cultura, de su lengua y de su personalidad. Un pueblo donde la pluralidad de pensamiento y sentimiento es sinónimo de riqueza; un pueblo donde trabajar, disfrutar y vivir.

Un pueblo que vive su presente desarrollando al máximo su potencial, con vistas siempre al futuro. Así lo hemos visto y sentido quienes, bajo las siglas de EAJ/PNV, hemos trabajado durante estos cuatro años desde el equipo de gobierno del Ayuntamiento, tratando de ofrecer nuestro mejor saber hacer y conocimiento, al servicio de nuestros vecinos y vecinas. Con humildad y con orgullo, con errores y aciertos, pero con la seguridad y la honestidad de haber dedicado estos cuatro años de nuestra vida a tratar de hacer de Mungia un pueblo aún mejor. Ha sido un verdadero honor.

Dicho y hecho **Esan eta egin** Dicho y hecho



# *Herritarron Parte Hartzea*

### *Proposatzen genuena:*

*Parte hartzeko guneak sortu eta indartzea, horrela, udal gobernua mungiarroi hurbiltzeko eta gerturatzeko eta hori edozein gai eta arlotan (...).*

### *Zer egin dugun:*

*• Sortuak genituen parte hartzeko organismo iraunkor batzuk eta hala jarraitu dute: Euskera Batzarra, Elkarbizitza Foroak eta Ingurumen arlokoak. Baina horrez gainera, beste parte hartze gune iraunkor batzuk sortu dira, herritarron parte hartzea era batera edo bestera bermatzeko. Horra:*

*- **Gizarte Kontseilua:** 2009an sortua, gizarte arloko gaien gainean kontsultak eta iritziak emateko parte hartzeko gunea da.*

*- **Hirigintza Aholku Kontseilua:** hirigintza-plangintzarekin zerikusia daukanaren gainean iritzia eta proposamenak egiten ditu.*

*- **Jai Batzordea:** 2010ean sortuta, jauzi kualitatibo bat izan da parte hartze prozesuetan; izan ere, berak diseinatu eta erabaki egiten du San Pedro jaietako jai programa.*

*- **Gazteentzako foroak:** Magik Mahaiak, Innobasquerekin eta Eudel-ekin batera garatutako proiektua.*

*- **Mungia 2021, hausnarketa estrategikoa,** Bilbao-Metropoli 30-eko arduradunek zuzendua.*

*- **Mugikortasun Plana:** gure herrian mugikortasunari, garraioari, aparkalekuei eta abarrei dagozkien gaietan iritziak batu eta proposamenak prestatutako foroak.*

*- **Bakerako eta Normalizazio Politikorako Foroak**.*

*- Era berean, aldian aldian batzarrak egiten dira auzoetako elkarteekin, auzoari dagozkion gaiak eta ekimenak arztertzeko.*

# Participación Ciudadana

### Se proponía:

Crear y reforzar espacios de participación ciudadana que acerquen la gestión municipal a los y las vecinas de Mungia, en cualquier tema de interés municipal (...).

### Qué hemos hecho:

• Además de los mecanismos de participación preexistentes que han continuado reuniéndose periódicamente como: **Euskera Batzarra**, **Foros de Convivencia** y **Foros medioambientales,** se han creado nuevos espacios de participación estables, que facilitan y garantizan la participación ciudadana en temas fundamentales para el desarrollo del municipio. Así se han creado:

- **Consejo Social:** creado en 2009, es un órgano consultivo sobre cuestiones de interés social del municipio.

- **Consejo Asesor de Urbanismo:** informa sobre cuestiones relacionadas con el planeamiento urbanístico.

- **Comisión de Fiestas de San Pedro:** en 2010 se ha dado un salto cualitativo en una Comisión encargada de diseñar el programa festivo y distribuir el presupuesto de fiestas.

- Foros para jóvenes. **Magik Mahaiak:** proyecto piloto desarrollado en colaboración con Innobasque y Eudel.

- **Mungia 2021.** Reflexión Estratégica: dirigido por responsables de Bilbao-Metrópoli 30.

- **Plan de Movilidad:** donde se analizaron y debatieron tanto el diagnóstico como las propuestas relacionadas con los medios de transporte y movilidad en Mungia.

- **Foros para la Paz y la Normalización Política:** desde 2007, Iniciativa Konpondu de Lehendakaritza.

- Foros de participación para recoger las propuestas vecinales y reuniones periódicas con representantes de las distintas **Asociaciones de barrios.**

EAJ PNV

# Esan eta egin Dicho y hecho Esan eta egin




## *Herritar Segurtasuna* / Seguridad Ciudadana

### *Proposatzen genuen:*

*Larrialdietarako eta segurtasunerako plan berriak gauzatzea, herritarrei eguneko 24 orduetan zerbitzua eskainita.*

### *Zer egin dugun:*

*Mungia **herri segurua** izatea gure lehentasunetako bat izan da.*

- *Horretarako, ekin eta ekin gabiltza gure herrian Ertzantzaren Komisaldegia egon dadin, ertzain gehiagorekin eta eskualde osoari zerbitzua emateko moduan.*
- *Indartu egin da Udaltzaingoaren estruktura beste Burutza batekin.*
- ***Inguruko auzoetan eta uriguneko inguru zehatz batzuetan indartu** egin da prebentziozko lana eta presentziala gau eta egun; batzarrak izan dira industria poligonoetako ordezkariekin segurtasuna lanak koordinatu ahal izateko.*
- ***Udaltzaingorako plaza berriak** sortzeari ekin zaio.*
- *Batez ere **Udaltzaingoaren lan hurbil, laguntzeko eta bitartekaritzakoaren alde egin dugu,** elkarbizitza kaltetzen duten hainbat portaerei aurre egiteko: gizalegezkoak ez diren jokaerak, herri guneak zaintzea, etxeko animaliei dagozkien arazoetan...*
- *2009ko martxoan, **Genero Indarkeria Jasan duten Enmakumeen Harrerarako Protokoloa** onartu zen.*
- *2010eko urtarrilean, **Larrialdi Plan berria onartu** zen; bertan zehazten da nolako protokoloa eta jarduerak jarraitu behar diren urioletan, suteetan edo edozein arrisku egoeratan.*

### Se proponía:

Implementar nuevos planes de seguridad y emergencia, ofreciendo servicio a la ciudadanía durante las 24 horas del día.

### Qué hemos hecho:

- Mantener Mungia como un **municipio seguro** ha sido una de nuestras prioridades. Para ello se ha planteado en reiteradas ocasiones, y se está trabajando, sobre la necesidad de contar en el municipio con una Comisaría de la Ertzaintza con mayor dotación de efectivos, que dé respuesta a las necesidades de la Comarca de Mungialdea.
- Se ha reforzado la estructura de la Policía Municipal con una nueva Jefatura, una **mayor labor preventiva y presencial** en barrios periféricos y zonas concretas del municipio, día y noche.
- Se ha abordado la **provisión de nuevas plazas en la plantilla de la Policía Municipal.** Además, se mantienen contactos con empresas de los diferentes polígonos industriales, a fin de coordinar las labores de seguridad.
- Se ha potenciado la **labor cercana, asistencial y mediadora** de la Policía Municipal en conflictos de convivencia que inciden en la calidad de vida del pueblo, como comportamientos incívicos, cuidado de espacios públicos, problemáticas con animales de compañía, etc.
- En Marzo de 2009 se aprobó **el Protocolo para la Atención de las Mujeres Víctimas de Violencia de Género** y en Enero de 2010 el nuevo **Plan de Emergencia Municipal,** donde se establecen los protocolos y pautas a seguir en casos de inundaciones, incendios u otras situaciones de riesgo para la población.

# Dicho y hecho Esan eta egin Dicho y hecho



# *Merkataritza* Comercio

*Proposatzen genuena:*

*Mungia eskualde osorako merkataritza gunea izan dadin lan egitea.*

*Zer egin dugun:*

*• Hirigintza-ekimen gehienak, neurri handi batean, merkataritza-jarduna indartzen duen inguru bat lortzeko izan dira: kale eta horma garbiak mantentzea, uriguneko-altzariak berriztatzea, espaloiak zabaltzea, urigunean trafikoa ordenatzea eta moteltzea...*

*• Aparkatzeko toki berriak sortu dira eta aldi baterako dohaineko aparkamendu mugatuaren sistema ezarri da merkataritza-gunean eta bikoiztu egin dira karga/deskarga tokiak denda eta zerbitzuen eskariari erantzunez.*

*• Merkagune Programaren barruan eta Merkatarien Elkartearekin batera, besteak beste, **Andra Mari merkataritza eta feria gunea sortu da.***

*• Herriko **merkataritza eta ostalaritza-katalogoa** argitaratu da; beste foileto batzuk argitaratu dira (Non Jan Non Lo, bertoko porduktoen saltzaileak...); tokiko merkataritzarako informazio panelak jarri dira herrian zehar.*

*• **Merkataritzarako beste zerbitzu batzuk** sortu dira: kartoia batzeko zerbitzua, sms-segurtasun zerbitzua, esukerazko karteleria edukitzeko materialak...*

*• Merkatarien Elkartearekin batera hainbat **dinamizazio-ekimen** egin dira: San Antontxu txorizo eta odoloste lehiaketa, Zapatuetako Plaza Berezia, Errosko Jaia, Marmitako Txapelketa...*

*• **Merkataritza-mahaia** eratu da herriko Merkatarien Elkartearen eta Udalaren arteko lan-koordinaziorako, herriko merkataritzari eragiteko ekimenak gauzatu ahal izateko.*

Se proponía:

Trabajar para el impulso de Mungia como núcleo comercial de referencia para la comarca.

Qué hemos hecho:

• Desarrollado numerosas actuaciones urbanísticas para crear un **entorno urbano más amable,** que potencie la actividad comercial: mantenimiento de calles y paredes limpias, renovación de mobiliario urbano, ampliación de aceras, ralentización y ordenación del tráfico, etc.

• Creación de dos nuevos parkings cercanos al pueblo, sistema de aparcamiento de tiempo limitado gratuito en la zona comercial y, atendiendo la demanda de los comerciantes, se han duplicado las zonas de carga y descarga.

• Dentro del Programa Merkagune, y junto con la Asociación de Comerciantes, se ha creado en **Andra Mari un nuevo espacio comercial y lúdico cubierto**.

• Puesta en marcha de un **catálogo comercial** del municipio, folletos publicitarios y puntos de información sobre comercio local.

• **Servicios específicos** para el comercio como: recogida de cartón adaptado a sus horarios, servicio sms-seguridad, apoyo a la comunicación en euskera...

• Se han impulsado, en colaboración con la Asociación de Comerciantes, numerosas **actividades de dinamización** comercial: Feria de San Antontxu, Zapatuetako Plaza Berezia, Errosko Jaia, Concurso de Marmitako0,...

• Se ha creado una **Mesa del Comercio,** como fórmula de trabajo conjunto entre la Asociación de Comerciantes del municipio y el Ayuntamiento.

• Colocación de paneles informativos en los principales monumentos del casco urbano.

EAJ PNV



# Gizartekintza Acción Social

### *Zer proposatzen zan:*

*Elkarren arteko solidaritatea eta gizartearen lotura gure politikaren ardatza izan daitezela, pertsona guztien arteko aukera berdintasuna bermatuz.*

### *Zer egin dogu:*

• *Krisi ekonomikoaren ondorioz, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan laguntza ekonomikoak (Gizarte Larrialdietarako **Laguntzak, Dirusarrerak** Bermatzeko Errenta...) eskatzera behartuak ikusi diran familien kopurua bikoiztu egin da azken lau urteetan. Hori dala eta, laguntza hauen tramitazioa azkar eta eraginkorragoa izateko helburuagaz,gizarte zerbitzuak indartu egin behar izan dira.*

• ***Menpekotasun egoeran dagozan** pertsonentzako eskaintzen diran zerbitzuen kasuan gauza bera gertatu da, araudi berriaren aplikazioaren ondorioz. Arlo honetan ere menpekotasun egoerei arreta emoteko hainbat ekintza eta programa gauzatu dira Jagoten programaren barruan.*

• ***Betiko programa eta zerbitzuez gain** (Etxez-etxeko laguntza zerbitzua, adingabeko eta emakumeentzako arreta psikologikoa, aholkularitza juridikoa, teleasistentzia, janarien banaketa, ume sahararrak hartzeko programa, elikagaiak batzeko karabana...ekimen barriak ere martxan jarri dira: **Etxez-etxeko laguntza zerbitzua erabiltzen daben pertsonentzako botikak emoteko zerbitzu pertsonalizatua, ohe artikulatuak uzteko zerbitzua, etxez-etxeko janari zerbitzua, familia eta herritarrei zuzentzen jaken bitartekaritza zerbitzua, adineko pertsonen etxeetan ipini diran suteak detektatzeko aparatuak...***

• *Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen daben pertsonei lana aurkitzen laguntzeko hainbat ekintza diseinatu eta martxan jarri dira.*

### Se proponía:

Hacer de la solidaridad y la cohesión social el eje de nuestra política, garantizando la igualdad de oportunidades para todas las personas.

### Qué hemos hecho:

• Por efecto de la crisis económica, el número de familias afectadas que se han visto obligadas a solicitar **Ayudas Económicas** (Ayudas de Emergencia Social, Renta de Garantía de Ingresos...) en los Servicios Sociales de Base se ha duplicado en estos últimos cuatro años. Ello ha obligado a reforzar los servicios destinados a su tramitación con el fin de dar una respuesta más ágil y pronta a las situaciones expuestas.

• Idéntica situación se ha dado en los servicios ofrecidos a las **situaciones de Dependencia** reconocidas como aplicación de la nueva normativa. Dirigido a este ámbito se han desarrollado distintas acciones de atención a la Dependencia desde el Programa Jagoten.

• Además de los **servicios y programas habituales** como Servicio de Ayuda a Domicilio, Orientación Psicológica a mujeres y menores, Asesoramiento jurídico, teleasistencia, reparto de alimentos, programa de acogida a niños/as saharauis "vacaciones en paz", caravana de alimentos, se han puesto en marcha nuevas iniciativas como: **Servicio de dosificación personalizada de medicamentos a usuarios/as del Servicio de Ayuda a Domicilio, Servicio de Préstamo de camas articuladas, Servicio de Comida a Domicilio, Servicio de Mediación Familiar y Comunitaria e Instalación de Detectores de Incendios en domicilios de Personas Mayores.**

• Se han diseñado e implementado distintos planes y acciones de Acompañamiento a la inserción laboral con personas perceptoras de la Renta de Garantía de Ingresos.

# Dicho y hecho Esan eta egin Dicho y hecho

• *Aukera berdintasunerako Zerbitzutik Mungiako* ***Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako II Plana*** *gauzatu eta garatu da, eta baita* ***"Tratu txarrak edo sexu-erasoren bat jasandako andrentzako laguntza-zerbitzua hobetzeko protokoloa",*** *2009ko martxoaren 31n onartua. Horrez gain sentsibilizazio kanpaina ezberdinak antolatu dira, "Gizonduz-Gizonak berdintasunaren alde", edo gazteei zuzendutako ikastaro eta tailerrak: Bardintasuna lantzen, Eraldatzen-baloreetan oinarritutako hezkuntza, bikote gazteen artean biolentzia jarrerak detektatzeko tailerrak...*

• ***Ezintasunen bat daukien pertsonei*** *zuzenduta, 2009 urtean kolektibo honen errealidadea eta beharrizanak hobeto ezagutzeko ikerketa bat gauzatu zan. Urtero Mungiako Udalak Bizkaiko bira paraolinpikoaren antolakuntzan parte hartzen dau, eta baitaBusti Zaitez eta antzeko beste sentsibilizazio kanpainetan ere.*

• *Urtero ezelako ordain barik beste pertsona batzuei laguntza emoten deutsen pertsona edo alkarte bati* ***AMAtxu Saria*** *emoten jako: 2008 urtean Gorabide Mungialderi emon jakon; 2009an Mungiako Caritas alkarteari; 2010 urtean euren gorpuak Zientzia eta Ikerketari utzi deutsien Mungiako pertsona anonimoei; eta 2011 urtean, Gizarte Kontseiluak proposatuta, euren familiei edo gaixorik dauden pertsonei laguntza emoten deutsen erakunde eta pertsonei, bereziki emakumezkoei.*

• ***Inmigrazinoaren arloan,*** *2010 urtean, talde honen errealidadea hobeto ezagutu eta kokatzeko helburuagaz, ikerketa bat egin da.*

• *Garapen bidean dagozan herrialde ezbardinetan aurrera eraman diren* ***kooperazio proiektu*** *ezberdinei Udaletik laguntza emon jake, toki ezbardinetan: Benin (emakume jostunen kooperatiba; ospitale baten eraikuntza), Venezuela (familia gabeko adingabekoen zentrua), Sahara (gudaren biktimen aldeko proiektua); Peru (lurrikararen ondorioz suntsitutako azpiegituren berreraikuntza); India (kalean bizi diran umezurtzen garapena eta hezkuntza);Uruguay (Villa Ansinako Herri Museoa)...*

• *Guzti horrez gain, eta Udalaren laguntzagaz, Bizkaiko Foru Aldundiak 2009an ezintasun psikikoa daukien pertsonentzako* ***Eguneko Zentrua*** *zabaldu eban Atxurizubin. 2010 urteko urrian ere,* ***ezintasun fisiko-psikikoa daukien pertsonentzako Bizkaiko lehendabiziko egoitza zabaldu zan.*** *Osakidetzagaz batera,* ***errehabilitazio zentrua*** *martxan ipini da Mungian, terapia mota hau jaso ahal izateko Gurutzetako ospitalera joan beharra ez izateko.*

• Desde el Servicio de Igualdad de Oportunidades se ha elaborado y desarrollado el **II Plan para la Igualdad entre mujeres y hombres de Mungia,** así como el **Protocolo de Coordinación local para la mejora de la atención a mujeres víctima de malos tratos y agresiones sexuales,** aprobado el 31 de marzo de 2009. Además se han desarrollado distintas campañas de sensibilización como la campaña Gizonduz-Hombres por la Igualdad u otros cursos y talleres dirigidos a la juventud: Bardintasuna lantzen, Eraldatzen-Educando en valores, detección de comportamientos violentos en parejas jóvenes, etc.

• En relación con las **personas con discapacidad,** se realizó en el año 2009 un estudio para conocer más de cerca la realidad y demandas del colectivo. Anualmente se colabora con la organización de varias etapas de la Bizkaiko Bira Paralinpikoa y otras campañas de sensibilización social como Busti Zaitez.

• Anualmente se otorga el **premio AMAtxu Saria** a una entidad o persona que haya destacado por su labor desinteresada a favor de los demás: en 2008 se entregó el premio a Gorabide Mungialde, en 2009 recayó sobre Cáritas Mungia, en 2010 el premio fue para las Personas anónimas de Mungia que han donado su cuerpo a la Ciencia y la Investigación y en 2011 el Premio, a propuesta del Consejo Social, es para las entidades y personas, mayormente mujeres y mayores, que dedican gran parte de su tiempo y dedicación a cuidar de familiares y/o personas enfermas.

• En el ámbito de la **inmigración** se ha elaborado en 2010 un estudio con el objeto de conocer y caracterizar la realidad del colectivo.

• Se ha colaborado con diversas asociaciones y ONGs en la **financiación de proyectos de cooperación** en países en vías de desarrollo como Benín (Cooperativa de Confección Textil de mujeres, Construcción de un Hospital), Venezuela (Centro de menores privados de familia), Sahara (Víctimas de la guerra), Perú (reconstrucción de infraestructuras tras terremoto), India (Desarrollo y educación de niños/as de la calle), Uruguay (Museo Comunitario Villa Ansina)...

• Además, y en colaboración con el Ayuntamiento, la Diputación Foral de Bizkaia abrió en 2009 un **Centro de Día** para 25 personas con discapacidad psíquica en Atxurizubi. En octubre de 2010 se inauguró la primera **residencia de Bizkaia de personas con discapacidad físico-psíquica,** gestionada por Aspace y con una capacidad de 36 personas. También se ha habilitado un **Centro de Rehabilitación** donde recibir terapia, sin necesidad de ir al Hospital de Cruces.

# Esan eta egin Dicho y hecho Esan eta egin



## Hirigintza: planeamendua eta etxebizitzak

## Urbanismo: planeamiento y vivienda

### Proposaten genuena:

*Mungiarron beharrizanei erantzutea, hirigintza-planak mungiarron eskakizunei egokituz, babes ofizialeko etxebizitza-beharrizanei erantzunez eta beharezko hornikuntza eta zerbitzuak sortuz.*

### Zer egin dugun:

- *Asko eta gatxak izan dira, Etxebizitza-Plana garatzeko, lau urte hauetan egindako jarduerak.*

*1. **R-7 GAMIZ BIDEA** bizitegi sektorea: babes ofizialeko 48 etxebizitza ditu eta zozketa ekainaren 8an egingo da Olalde Aretoan.*

*2. **HARRI 1 S.L.** Aita Elorriagan: babes ofizialeko 26 etxebizitza alokairuan; lanak amaitzeko daudela, zozketa 2011ko bigarren seihilabetealdian egingo da.*

*3. **N-101-OLALDDE:** babes ofizialeko 40 etxebizitza jabego-eran; indusketa-lanak hasita, zozketa 2011ko bigarren seihilabetealdian egingo da.*

*4. **LORADI:** Mungiako hirigintza-hedapenerako ingurune klabea da; bertan babes ofizialeko 300 etxebizitzatik gora eta 120 etxebizitza tasatu eraikiko dira; horrez gainera, bertan egingo dira Butroe ibaia ubiderateko lanek euren etxebizitzatik irtenaraziko dituzten 28 familientzako etxebizitzak; bertan izango dira nagusientzako alokairuzko etxebizitzak ere.*

*5. **KARMELO ETXEGARAI-MESA:** MESA enpresa urigunetik Trobikara irtendakoan, enpresa zegoen tokian beste egoitzalde bat eratzeko urratsak ematen ari gara; horretan babes ofizialeko beste 100 etxebizitza eraiki ahal izango dira datorren legealdian.*

*6. **LARRABIZKER:** urbanizatzeko moduko lur-zorua kudeatzen duen Kontzertazio-Baltzuagaz batera, gure udalak dena proiektu bakartzat kudeatu du eta, horrela,*

### Se proponía:

Dar respuesta a las necesidades de vivienda protegida del municipio, adecuando los planes urbanísticos a las demandas de los y las mungiarras, creando así mismo los servicios y equipamientos necesarios.

### Qué hemos hecho:

- Numerosas gestiones acometidas de planeamiento urbanístico en desarrollo del Plan de Viviendas:

**1. Sector residencial R-7 GAMIZ BIDEA:** Con 48 Viviendas de Protección Oficial en propiedad, el sorteo se realizará el próximo 8 de junio, en Olalde Aretoa.

**2. HARRI 1, S.L. (calle Aita Elorriaga):** 26 Viviendas de Protección Oficial en régimen de alquiler. El sorteo se celebrará en el segundo semestre de 2011.

**3. N-101- OLALDE:** 40 Viviendas de Protección Oficial en propiedad. Comenzada la excavación, el sorteo está previsto también para el segundo semestre de 2011.

**4. LORADI:** Sector clave para el desarrollo urbanístico de Mungia a corto plazo, donde está previsto construir más de 300 VPO y 120 Viviendas Tasadas, donde se ubicarán las 28 viviendas para el realojo de las familias afectadas por el reencauzamiento del río Butrón. Además, incluye equipamientos como Alojamientos Dotacionales en alquiler para personas mayores.

**5. KARMELO ETXEGARAI-MESA:** Tras la salida del casco urbano de la empresa MESA a la nueva ubicación del polígono industrial de Trobika, se está gestionando el nuevo sector residencial que surgirá en el anterior emplazamiento de la empresa y que posibilitará la construcción de más de 100 VPO en la siguiente Legislatura.

**6. LARRABIZKER:** Se tramitará todo el sector como un único proyecto de urbanización donde construir 284

# Dicho y hecho Esan eta egin Dicho y hecho

*babes ofizialeko 284 etxebizitza eraikiko dira, horietatik 200 udal jabegokoak direnak. Mungia Beharren udal soziedadearen bidez, lehen fase baten, babes ofizialeko 76 etxebizitza eraikiko dira; horretarako, aurtengo maiatzean eraikuntza-proiektua esleitu egin da.*

- *Krisi egoera honetan babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeari utzi egin zion ekimen pribatuak eta gure Udalak 2009an soziedade publiko bat sortu zuen, **MUNGIA BEHARREAN S.A.,** batez ere babes ofizialeko etxebizitzak sortu ahal izateko. Udal sozietate hau 2010ean **"babes ofizialeko etxebizitzen eskatzaile errolda"** bat sortu du.*

*Beste alde batetik, Mungiaren garapen ekonomikoa bermatu beharra zegoen eta horretarako behar besteko industria-sailak behar dira enpresa-proiektuetarako. Horrela, **Luisene Industria-lur Saila** (79.000 $m^2$) garatu eta **Belako-Atela industria-lur saila** gehitu da (127.000 $m^2$ Belakoko 499.808 $m^2$-ri gehitzen zaizkionak). Urigunetik oso gertu, **beste 40.000 $m^2$ lortu dira udalaren partetik,** truke bidez, bertan udal ekipamenduetarako lekua izateko, Zubitxalde inguruan.*

*Hona hemen Hirigintza Arlotik eragin diren **beste ekimen batzuk:***

***- Udaletxearen berriztatze lanak.***

*- **Uriguneko hainbat kale eta gunetan egindako lanak:** Zubiaga-Butroi ingurua, Usandizaga eta Intxausti Eresgile; Sagardi, Aureliano Galarza eta Elorduigoitia; Aritz Bideako espaloia; Ibaigane; Iturribarriondo.*

***- Tanatorio berria Markaidako udal hilerrian.***

*- **Ferialekuko askotarako eraikuntza barria**.*

*- 2009ko apirilean, eta negoziazio urte batzuen ostean, Monte Berreaga-ko komunitateko gobernu batzordeagaz **itun bat sinatu zen urbanizazioko saneamendu eta ur edangarrien lehen eta bigarren sareak birgaitu, ustiatu, kudeatu eta mantentzeko.** Itun edo konbenio hori komunitateko kide batzuek inpugnatu eta atzera eragitea lortu dute.*

*- Honetaz guztiaz gainera, beste erakunde batzuen esku dauden **hainbat proiektutan** parte hartu du gure udalak: Laukarizeko eskola berria, Legardako eskola berriaren proiektua, Eusko Jaurlaritzaren esku uztea eskualde osorako anbulategi berrirako lur saila, Osakidetzarekin itun bat egitea Mungian Birgaitze Zentru bat izateko berria eraikitzen den artean, Belakoko Elkartegi berria garatzea Alkargo enpresaren zabalkuntza (70 lanpostu berri sortuko dituena), MESA enpresa beste sail batera eroatea (200 lanpostutik gora herrian geratzea ekarri duena); Bentades Ikastetxeko kirol pista estaltzea; Mungia-Bermeo autobidea bideratzea.*

VPO, de las que 200 son de propiedad municipal. A través de la sociedad municipal Mungia Beharrean, se ha adjudicado, en mayo de 2011, la redacción del proyecto de construcción de 76 VPO.

- En 2009 se creó una **Sociedad Pública, MUNGIA BEHARREAN, S.A.,** con el objeto de responder a la demanda de vivienda protegida. En septiembre de 2010 se puso en marcha un **Registro Municipal Permanente de solicitantes de vivienda de protección oficial.**

Como forma de garantizar el desarrollo socio-económico de Mungia, se ha desarrollado el **Sector Industrial Luisene** (79.000 $m^2$) y ampliado el **sector industrial de Belako-Atela** (127.000 $m^2$ a sumar a los 499.808 $m^2$ del polígono de Belako). También se han adquirido **más de 40.000 $m^2$ de terreno para equipamientos municipales** en la zona de Zubitxalde.

Por otra parte, se han ejecutado **otras actuaciones urbanísticas,** entre las que destacamos:

- Fin de la obra de **Rehabilitación del Ayuntamiento.**

- Obras realizadas en diversas **calles y zonas del casco urbano:** Entorno Laubide, Usandizaga e Intxausti Eresgile; Sagardi, Aureliano Galarza y Elordugoitia; Alkartasuna y Trobika; acera Aritz Bidea; Ibaigane; Iturribarriondo.

**- Nuevo Tanatorio en el Cementerio Municipal de Markaida.**

**- Edificio Polivalente del Ferial.**

- En abril de 2009, y tras varios años de negociación. se firmó con la anterior Junta de Gobierno de la Comunidad de Propietarios Monte Berriaga, el **Convenio para la gestión, mantenimiento, explotación y reposición de las redes primaria y secundaria de agua potable y de saneamiento de la urbanización.** Convenio impugnado por algunos miembros de la Comunidad.

- Además, participado en **otros importantes proyectos** para el municipio cuya competencia corresponde a otras instituciones como: construcción de la nueva Escuela de Laukariz, definición de la nueva escuela de Legarda, puesta a disposición del Gobierno Vasco de un solar que albergará el nuevo Ambulatorio para toda la comarca, convenio con Osakidetza para la puesta en marcha de un Centro de Rehabilitación en Mungia mientras se construya el nuevo ambulatorio, desarrollo del Elkartegi de Belako, ampliación de la empresa Alkargo (con creación de 70 nuevos puestos de trabajo) y nueva ubicación de la planta de MESA (con el mantenimiento de más de 200 puestos de trabajo en el municipio); la cubrición de la pista polideportiva de Bentades Ikastetxea Fundazioa o la Autovía Mungia-Bermeo.

# Esan eta egin Dicho y hecho Esan eta egin



## Euskera

### Proposatzen genuena:

*Euskera bera udal politikaren zeharkako elementu bihurtzea eta berau egunero erabili beharreko hizkuntza bihurtzea.*

### Zer egin dugun:

- *Euskera Biziberritzeko Plan Nagusiaren barruan hainbat ekintza burutu dira, beti euskera modu integralean lantzeko asmoagaz:*

- ***Urtero:** jaioberrientzako gutunak, abizena euskeraz ipintzeko kanpaina, ume jagole euskaldunak topatzeko eskaintza, euskerazko ereduetan matrikulatzeko kanpaina, euskera-ikasleentzako diru laguntza bereziak, ume etorkinentzako euskera-eskolak, seme-alaben heziketan lagungarri diren ikastaroak (Euskera maite, Etxean hazi, etxean ikasi) "Nigaz euskeraz" sentiberatze kanpaina...*

- ***Gurasoen elkarteei eskolaz kanpoko ekintzak egiteko laguntza:** monitore eta entrenatzaile euskaldunen lanpoltsa, Nigaz euskeraz monitoreentzako kanpaina...*

- *Kirol taldeekin Euskera Sasoian diru-laguntza eta aholkularitza kanpaina...*

- ***Eskolen arteko lan taldea:** berari esker egin dira Erreportaia eta Ipuin lehiaketak, Mihiluze lehiaketa euskera elkartearekin, Mungialdeko berbak publikazioa.*

- ***Administrazioaren barruko Erabilera** Plana onartuta, lan handia egin da ahozko eta idatzizko erantzuna bermatzeko, dokumentazioa normalizatuz... Herritarrentzako dokumentazioa, informazioa eta gutunak euskeraz irteten dira.*

- ***Merkataritzarako eta enpresentzako** doako itzulpen eta aholiularitza-zerbitzua eskaintzen da gaur egun; merkataritzarako karteleria eta materialak sortu dira paisaia euskalduntzeko asmoagaz...*

- *Abenduaren 3an Euskeraren Eguna indartu eta instituzionalizatu egin da. Bertan egunean, **Lauaxeta Olerki lehiaketa** egiten da eta, batez ere **Euskera Saria** ematen zaio euskeraren aldeko konpromisoari sendo eutsi dion herritar edo talde bati.*

- *Gure kultur eta hizkuntza ondarea batzen jauzi handia egin da: 2010ean herriko toponimiari buruzko lana aurkeztu zen eta eskuragarri dago web orrian eta Labayruren eskutik ikerketa etnografikoa abiatu da, aurten bere fruituak emango dituena.*

# Dicho y hecho Esan eta egin Dicho y hecho




## Proposatzen genuena:

Auzoentzako azpiegiturak eta beharrezko zerbitzuetan aurrera egitea.

## Zer egin dugun:

• **Argi-azpiegituretan eta herribideak asfaltatzean hainbat hobekuntza egin dira:** Olabarrieta bidea, Atelata-LLona, Txirlone bidea, San Martin bidea, Santa Mariñe bidea, Markaida, Karmelo Etxegarai, Derio bidea eta Atxuri; Llonako eta Birleko ermiten erreteila ere egin da.

• **Markaida, Larrauri eta Laukarizeko ortusantuak** konpondu eta berriztatu egin dira.

• **Ur-hornikuntzaren bigarren sareen hobekuntza** programaren barruan, milioi erdi euroko inbertsioak egin dira azken lau urteetan bakarrik. Honetan lanik handienetako bat Trobikakoa izan da. Arlo honetan egindako beste lan batzuk hauexek izan dira: **Araztegia zabaltzea,** Belakoko industria-poligonoko urak eta hainbat auzotako (Atela, Llona, Iturbaltzaga, Belako, Larrauri, Laraudo) urak batzeko kolektoreak; Butroe ibaiko eskuin aldeko Olalde inguruko bonbeogunea eta lehen sarea konpontzea...

• Ahal izan den auzo batzuetan **auzo-toki** bat eraiki eta atondu da auzokoen topaguneak bilguneak sortu eta errazteko; horrela eraiki dira **Laukarizekoa eta Larraurikoa.**

• **Birleko** auzokoen segurtasun ardurei erantzun egin zaie: beste autobus geltoki seguruago bat sortu da, espaloiak eta semaforoak ipini dira.

## Se proponía:

Avanzar en la dotación a los barrios de las infraestructuras y servicios necesarios.

## Qué hemos hecho:

• Se han realizado numerosas actuaciones en **mejora de infraestructuras de alumbrado público y asfaltado de carreteras:** Así se ha actuado en Olabarrieta Bidea, Atela-Llona, Txirlone Bidea, San Martin Bidea, Santa Mariñe Bidea, Markaida, Karmelo Etxegarai, Derio Bidea y Atxuri; Así mismo se han retejado las ermitas de Birle y Madalen.

• Se han acondicionado **los cementerios de Markaida, Larrauri y Laukariz.**

• Siguiendo con el desarrollo del **Plan de Reposición de Redes Secundarias de Abastecimiento de Agua,** se ha dado continuidad al plan anual de inversiones, con más de 500.000 euros en cuatro años. Una de las actuaciones más destacables ha sido la nueva red de abastecimiento de agua del Polígono Industrial de Trobika. Se continúa con el plan de cobertura y optimización de la red de saneamiento: así se ha ejecutado la **ampliación de la Depuradora,** el desarrollo de los colectores para la recogida de aguas residuales de los polígonos industriales (Belako) y barrios (Atela, Llona, Iturbaltzaga, Belako y Larrauri y Laraudo); renovación del tramo de la red primaria y estación bombeo margen derecha del río Butroi por Olalde, etc.

• Se ha dotado a varios barrios de un **local social** con el objeto de dinamizar y favorecer el encuentro y reunión de los vecinos: Así se han construído los locales de **Laukariz** y se han rehabilitado las escuelas de **Larrauri.**

• Se ha mejorado la seguridad de los vecinos de **Birle,** dotando al barrio de una nueva parada de autobús, aceras y semáforos como medida de calmado del tráfico.

EAJ PNV



# *Sustapen ekonomikoa eta enplegua*

### *Zer proposatzen genuen:*

*Behargintzatik sustapen ekonomikorako eta enplegurako ekimen guztiak lideratzea eta bateratzea, batez ere laneratzeko zailtasunak dituzten gizataldeentzat eta, beste erakunde batzuekin batera, eskualdean enplegua sortzen duten lan eremuak sortzea.*

### *Zer egin dugun:*

*Jasaten ari ginen krisi ekonomikoa zela eta, 2008an **Krisiaren Aurkako Toki Ekintza Plana** jarri genuen abian. Bertan ahalik eta modu eraginkorrenean krisi egoera horri aurre egiteko tresnak definitu ziren, bai herri agintaritzaren aldetik, bai ekimen pribatuaren aldetik. Bederatzi arlotan zehaztu eta gauzatu ziren hainbat neurri: aurrekontuak murriztea eta kontrolatzea, auzokoen aldeko neurriak (tasa eta zerga batzuetan hobariak eta salbuespenak bezalako neurriak), gizarte arloan laguntza neurriak, laneratzeko orientazioa, trebakuntza, laneratzea, sustapen ekonomikoa...*

*Hori dela eta:*

- *Mungialdeko Behargintzako **lan orientazio eta bitartekaritzarako zerbitzuak 15.224 kontsulta** izan ditu azken lau urteetan. 1.251 erabiltzailek erabili dute bertatik eskainitako Lanbide zerbitzua.*
- ***Mila enplegu eskaintzatik gora tramitatu dira.***
- ***Laneratzeko trebakuntzarako hainbat ekintza** burutu dira (mekanizatu ikastaroak, marketing-a eta salmentak, biltegiaren hornikuntza eta kudeaketa, industria-garbiketa, elikadura-kudeaketa...) eta on line trebakuntza eskaini da.*
- ***Mungialdeko Lanbiderako Hastapenerako Zentruan (PCPI)** lau heziketa-espezialitate eskaini dira.*

# Promoción económica y empleo

### Se proponía:

Liderar y coordinar desde Behargintza iniciativas de promoción económica y de empleo para diferentes colectivos con especiales dificultades de inserción socio-laboral, creando, conjuntamente con otras entidades, espacios de cooperación que impulsen la creación de empleo en la comarca.

### Qué hemos hecho:

Ante el avance de la situación de crisis económica, en 2008 se decidió poner en marcha un **Plan de Acción Local Anticrisis,** donde se definen acciones e iniciativas que recogen distintas estrategias conjuntas de los entes públicos y entidades sociales para hacer frente a las adversa situación económica con la mayor efectividad posible. Así se incorporan medidas en nueve campos de acción: Ajuste y control presupuestario, acciones positivas dirigidas a vecinos/as y agentes socioeconómicos como bonificaciones y exenciones en determinados impuestos y tasas, medidas de apoyo en materia social, orientación socio-laboral, formación, inserción laboral, promoción económica...

Con todo ello:

- El servicio de **orientación e intermediación laboral** de Mungialdeko Behargintza ha atendido en estos últimos cuatro años **15.224 consultas** planteadas por vecinos y vecinas de Mungia y Mungialde. 1251 usuarios/as han empleado el servicio Lanbide ofertado desde la entidad.
- Se han tramitado más de un **millar de ofertas de empleo.**
- Se han efectuado diversas acciones de **formación ocupacional** (Cursos de mecanizado, marketing y ventas, logística y gestión de almacén, limpieza industrial, gestor alimentario...) y formación on-line.

• ***Inem-Corporaciones Locales*** *deritzon programaren bidez 41 pertsona kontratatu dira hainbat arlotan: herriarentzako zerbitzuak, ingurumena, informaziorako teknologiak, merkatu prospekzioa eta abar; enplegua sortu duten beste ekimen batzuk egin dira,* ***Auzolan programa*** *kasu.*

• ***253 enpresa-ekimen*** *berri kudeatu dira; horietatik 51 enpresa bihurtu dira. Urtero Lur barriak saria banatu zaio ekimen onenari. "Ni ekintzaile, ni enpresari?" ekimena burutu da gure gazteen artean ekintzaile eta enpresari izateko kultura baloratzeko eta horrekin batera Aurelio Artetxe enpresa-ideietarako saria eratu da. Diru-laguntzak edo pizgarriak eman dira azken bi urteetan enpresa-berriak Mungialdeko Behargintzaren bidez sortu dituztenentzat.*

• ***Enpresentzako zerbitzuen katalogo bat*** *egin da eta udalerrian kokatutako enpresen geografia-informazio sistema bat eratu da. Poligonoen seinalizaziorako programa abian jarri da.*

• *Enplegu tailerra garatu da; horren bidez, Larrauriko eskolak auzoarentzat berriztatu dira eta urtebetez 11 langabeturi eman zaie lanerako eta formaziorako aukera.*

• Anualmente se han ofrecido cuatro especialidades formativas en el **Centro de Iniciación Profesional de Mungialde (PCPI).**

• Mediante el programa **Inem-Corporaciones Locales,** se han desarrollado 41 actuaciones en distintos ámbitos de actividad como servicios a la comunidad, medio ambiente, tecnologías de la información, prospección de mercados, etc.; se han desarrollado otras iniciativas que también han permitido generar empleo como el **Programa Auzolan.**

• Se han gestionado un total de **253 iniciativas empresariales,** de las que un total de 51 han sido maduradas con su correspondiente plan de negocio. Los mejores proyectos empresariales tutorizados se han visto recompensados anualmente con la concesión del premio **Lur Barriak.** Otras iniciativas de apoyo a la cultura emprendedora han sido: la campaña "Ni ekintzaile? Ni enpresari?", los talleres de emprendedores o el Concurso de ideas empresariales Aurelio Arteche, así como la concesión de ayudas económicas anuales para la puesta en marcha de negocios generados con el apoyo de Mungialdeko Behargintza.

• Se ha elaborado un **Catálogo de servicios a empresas** y se ha creado un mapa virtual de las empresas radicadas en el municipio. Además se ha trabajado en la mejora de la señalización de los accesos a los polígonos.

• Se ha desarrollado un Taller de Empleo de albañilería mediante en el que se han recuperado las escuelas de Larrauri y que empleó a 11 personas desempleadas de Mungia durante un año.





# Ingurumena

## *Proposatzen genuena:*

*Toki Ekintza Planaren barruan, ingurumenaren aldeko ekintzak lideratzen jarraitzea.*

## *Zer egin dugun:*

***Mungiako Jasangarritasunerako Ingurumen II. Ekintza Planean** zehaztutako helburuak bete egin dira.*

- *Agenda 21eko foroeez gainera, udalerriko natura ingurunearen gaineko hainbat ikerketa egin dira: Santa Marina eta Morterondoko **landaredia eta fauna azterketa;** Berreagamendiko herri ingurunearen azterketa; Belako-Teileria saileko azterketa; Butroe ibaiaren obrak egin diren artean, ingurugiroaren kontrol lanak kontratatu dira ingurunean ahalik eta eraginik txikiena izan dezan...*

- *Lur zoru industrialeko jardunak birraztertu eta inbentariatu dira, kutsatze fokoak detektatzeko.*

- ***Butroe ibai** bazterretan **gune didaktiko bat** sortu da bertoko landarediari eta faunari buruzkoa.*

- *Hainbat **sentsibilizazio kanpaina** eratu dira: gorotzak batzeko poltsak-eta banatuta; uraren kontsumo zentzuzkoa; hegaztiei eraztunak ipintzea; eskola ortuak; zineforumak; interesa duten tokietara txangoak; Eskola Agenda 21eko eskola arteko foroa; jai garbiak kanpaina; hondakinen biltze sailkaturako kanpaina; erabilitako olioa batzeko edukinontziak jartzea...*

- *Urtean zehar **hainbat ekitaldi** garatu dira urteotan: Zuhaitz Astea; 5 urte betetzen dituzten umeek arbolak landatzea; apaintzeko bertoko landarearen feria; aste berdea; mugikortasunaren astea; Oines Busa ekimena; Nekazaritza Ekologikoaren Feria; Butroe Errekaren Astea; Euskal Artzain Txakurraren Bizkaiko Txapelketa...*

- *Horregatik guztiagatik, urte hauetan guztietan Bandera Berdedun Udal Arduratsua saria jaso dugu dauden bost kategorietan.*

# Medio Ambiente

## Se proponía:

Continuar liderando iniciativas medioambientales en el marco del desarrollo del Plan de Acción Local.

## Qué hemos hecho:

- Se han cumplido los objetivos recogidos en el **II Plan de Acción Ambiental para la Sostenibilidad de Mungia.** Además de los foros de participación ciudadana de Agenda 21, se han realizado diversos **estudios sobre el espacio natural** del municipio: Estudio de Flora y Fauna de Santa Marina y Morterondo, Estudio de la zona de Parque Público de Monte Berriaga, Estudio de la parcela municipal de Belako La Tejera, Vigilancia Ambiental durante las obras de encauzamiento del Río Butroi y Revisión e Inventariado de Actividades en suelo industrial y Caracterización de los focos de emisión.

- Siguiendo el trazado del **río Butroi,** se ha habilitado un **espacio didáctico** sobre la flora y fauna del ecosistema del río y su entorno.

- Desarroll o de diferentes **campañas de sensibilización** como: Buenas prácticas en la educación de las mascotas; Consumo Responsable del Agua; Anillamiento de aves; Huertos Escolares; Zineforum; salidas guiadas a puntos de interés naturalístico, Foro Intercentros Agenda Escolar 21, Campaña Jai Garbiak o campañas sobre la recogida selectiva y reciclaje de residuos.

- Además, se celebran **otras actividades** dentro de Zuhaitz Astea, con la Feria de Planta Ornamental Autóctona y la Plantación de árboles de los niños/as, Aste Berdea, Mugikortasunaren Astea, con la celebración del Día sin mi coche e iniciativas como Oinez Busa, Feria de Agricultura Ecológica, Butroi Errekaren Astea, Campeonato de Bizkaia de Euskal Artzain Txakurra...

- Todo ello nos ha valido el reconocimiento durante todos estos años como Municipio Responsable Bandera Verde en las cinco modalidades existentes.




### *Proposatzen genuena:*

*Herriko turismoa dinamizatzea, geure eskaintza berezi batekin.*

### *Zer egin dugun:*

• ***Izenaduba Basoa-Olentzeroren Baserria:*** *Euskal Herriko lehen parke mitologiko hau martxan jartzeak Mungiara 100.000 bisitaritik gora ekarri ditu; horrela, alde turistikotik, elementurik baliotsuena eta erakargarriena bihurtu zaigu. Landetxo Goikoaren 500. urteurrena aprobetxatu egin da daukagun bitxi hau ezagutarazteko eta balioesteko, bisitariak erakartzeko beste elementu bat izan dadin. Herrian zehar bisita gidatuak ere egiten dira.*

• ***Lauaxetaren Txokoa*** *sotu da, gure idazlearen bizitzari eta lanei buruzko erakusketa, beste eskaintza batzuekin batera bisitariak erakartzeko erreferentzia izan dadin.*

• *Urtean zehar* ***hainbat ekimen berezi*** *egin dira (Bildumazaleen Feria, Internet Eguna, Feriak, Ibilaldiak...) eta beste berri batzuk sortu dira bertoko produktuak edo ohiturak kanporatzearren (Lapikoko Eguna, Slow pintxoak...).*

• *Bizkaiko herri bakarra gara, hamabostero ganadu-feria mantentzen duena.*

• *Uriguneko monumenturik eta eraikuntzarik garrantzitsuenetan informazio-panelak jarri dira; horrela, herrian zehar bisita gidatuak egiteko aukera sortzen da.*

### Se proponía:

Dinamizar el turismo local, con un estilo propio y diferenciado.

### Qué hemos hecho:

• **Izenaduba Basoa-Olentzeroren Baserria:** La puesta en marcha de este primer y único parque mitológico de Euskal Herria ha supuesto la visita a Mungia de más de 100.000 personas en tres años, convirtiéndose así en uno de los principales tractores turísticos y económicos del municipio. La conmemoración del 500 aniversario del caserío Landetxo Goikoa ha permitido poner en valor ésta joya arquitectónica, ofreciendo además visitas guiadas de carácter etnográfico.

• Se ha creado **Lauaxetaren Txokoa,** espacio de exposición permanente de la vida y obra del poeta y escritor vasco, que junto con otros elementos de interés turístico atraen visitantes a Mungia.

• Se han potenciado **eventos singulares** que forman parte del calendario festivo y de actividades habitual del municipio y se han creado otras nuevas con el fin de promocionar productos y/o costumbres autóctonas como el Lapikoko Eguna, Concurso de Pinchos Slow...

• Además, cada 18 de enero, en el marco de la festividad de San Antontxu, se organiza una gran **Feria Agrícola y Ganadera,** con exhibiciones comentadas de razas autóctonas. Mungia es el único municipio de Bizkaia que mantiene la Feria Quincenal de Ganado y maquinaria agrícola.



# Mugikortasuna eta garraioa

### *Proposatzen genuena:*

*Mugikortasun planean herritar guztien beharrizanak batzea oinezkoen eta ibilgailuen arteko elkarbizitza guneak sortuz eta aparkaleku sarea eratuz; garraio publikoa hobetzeko lan egitea eta Mungia Bizkaiko tranbide-sarean ezartzeko oinarriak prestatzea.*

### *Zer egin dugun:*

*Mungiako Mugikortasun Planaren Diagnostikoa gaurkotu egin da mungiar askoren ekarpenekin eta, ondoren, hainbat ekimen burutu dira:*

- *Aldi baterako* ***dohaineko aparkagune*** *bat sortu da erdigunean bertan, 70 aparkaleku dituena.*

- *Uriguearen inguruan eta erdigunetik gertu parking-sare bat osatzen ari gara: Landetxo (80 ibilgailu) eta Larreta (140 ibilgailu).*

- ***Trafikoa eta oinezkoentzako bideak berrantolatzeari ekin zaio hainbat eremutan:*** *Alkartasuna, Trobika, Elorduigoitia-Zubiaga, Ibaigane, Iturribide... Trafikoa moteltzeko neurriak hartu dira: bidegurutzeetan, oinezkoentzako pasaleku goratuak, estratzak estutzea, "belarri" babesleak sortzea...; leku batzuk oinezkoentzat gorde dira (Matxin-Forien plaza)...*

- ***Karga/deskarga tokiak*** *bikoiztu egin dira, merkataritzaren eta bertako bizilagunen mesederako.*

- ***Aldundiak Mungia-Bilbao lineako autobusen maiztasuna edo frekuentzia gehitzea lortu bada*** *ere, oraindik jarraitzen dugu lanean gaueko ordutegia zabaldu dezateneta baita asteburuetan ere.*

- ***Ibilbide edo bidegorri*** *batzuk egin dira: Morterondo-Belako; Llonarako ibilbidea; Tailurako pista eta Birle-Markaida pista; Atxuriko ibilbidea*

# Movilidad y transporte

### Se proponía:

Recoger en el plan de movilidad las necesidades de toda la ciudadanía, creando espacios de coexistencia entre peatones y medios de transporte y creando una red de aparcamientos; trabajar por la mejora de los servicios de transporte público y poner las bases para integrar Mungia en la red ferroviaria de Bizkaia.

### Qué hemos hecho:

Tras la actualización del Diagnóstico del plan de movilidad de Mungia realizado con importantes aportaciones de diferentes colectivos de Mungia, se han llevado a cabo diferentes iniciativas:

- Se ha creado una **zona de aparcamiento rotatorio gratuito** de una hora de duración en el centro urbano, con una capacidad inicial de 70 plazas.

- Se ha habilitado una red de aparcamientos de superficie cercanos al centro urbano: Parkings de Landetxo (80 vehículos) y Larreta (140 vehículos).

- Se ha incidido en la **ordenación viaria y del tráfico** en algunos puntos como Alkartasuna Kalea, Trobika Kalea, cruce Elordugoitia-Zubiaga Kalea, zona Ibaigane, Iturribide, etc. Se ha procedido a adoptar medidas de calmado del tráfico como: intersecciones y pasos de peatones sobre-elevadas, estrechamientos de calzada, habilitación de "orejetas" en cruces...; y se ha reservado algunos espacios, como la intersección de las plazas Matxin y Foruen, para uso del peatón.

- Se han duplicado las **zonas de carga y descarga** para facilitar su actividad al comercio local y también a los residentes.

- Aunque se ha logrado que la Diputación incremente las **frecuencias de los autobuses en la línea Mungia**

*argiztatu egin da Temo Zarratik Zabalondoraino; espaloi berria egin da Zabalondotik Laukarizeko eskoletaraino, bi auzo hauek modu seguruan lotuta.*

- ***Paladon autobusentzako autobus geltoki** nagusi bat prestatu da.*

- *Hobetu egin da Gatika, Jatabe eta Sopelarekin zegoen autobus lotura, maiztasun handiagoa lortuz.*

- *Modu esperimentalean bada ere eta oraingoz garraio publikorik ez daukaten auzoetara mugatuta, **Mungibusa urigarraio** zerbitzua sortu da, auzoak eta urigunea lotzen dituzten bost ibilbide desberdin sortuta.*

- *2009ko azaroan aurkeztu genuen Eusko Jaurlaritzaren Garraio Partzuergoan eta Garraio Sailean gure udalak eskatuta prestatu den dokumentazio tekniko bat. Dokumentazio horretan, metroa Loiuko aireportutik Mungiari lotzeko hiru aukera posible biltzen ziren, Eusko Jaurlaritzan kontuan izan dezaten garraiobide hau garatzeko planetan.*

**Bilbao** en horas punta, seguimos reivindicando una ampliación del horario nocturno y un refuerzo de los autobuses que salen desde Mungia en determinados horarios y fechas señaladas, incluídos los fines de semana.

- Se han ejecutado diferentes **paseos o bidegorris:** Ibilbide a Morterondo-Belako; Ibilbide al Barrio de Llona; pistas forestales a Tallu y Birle a Markaida; además se ha alumbrado el bidegorri entre Telmo Zarra y Derio Bidea. También se ha ejecutado una nueva acera desde Zabalondo hasta las escuelas de Laukariz uniendo los dos barrios de una forma segura.

- Creación de una **parada de autobús** en la Calle Palado.

- Se ha mejorado la conexión de Mungia con los municipios de Gatika, Jatabe y Sopela, con una frecuencia horaria más amplia.

- Aunque de una forma experimental y reducida de momento sólo a algunos barrios que no cuentan con otro transporte público, se ha puesto en marcha el servicio de **autobús urbano Mungibusa,** con cinco recorridos diferentes que unen a los barrios con el casco urbano.

- En noviembre de 2009 se hizo entrega a la dirección del Consorcio de Transportes y representantes de la Consejería de Transportes del Gobierno Vasco, de un documento técnico donde se recogían tres posibles trazados de conexión del metro entre el Aeropuerto de Loiu y Mungia, a fin de que las mismas sean tenidas en cuenta en los futuros desarrollos de este medio de transporte.



# Esan eta egin Dicho y hecho Esan eta egin



## Kultura eta Kirola

## Cultura y Deporte

### Kultura. Proposatzen genuena:

*Adin guztientzako kultur egitarau zabal bat sustatzea herriko elkarteek parte hartzen duten ekintza bereziak finkatuz.*

### Zer egin dugun:

- *Bi alderdi nagusi batzen dituen **kultur ekimenak** bultzatu ditugu: **gure ohitura eta kultura** babestea eta herriko elkarteen parte hartzea sustatzea. Izan ere, egitarau zabal hau ez litzateke posible izango finkatzea, Mungiako elkarte guztien laguntza gabe. Azpimarragarriak dira: Lore Jokoak, Mungia Folk, Basatostea, Ihauteriak, Santa Ageda, Euskal liburu eta Diskaren Azoka, Bildumazaleen Feria, Truke Eguna, Aintzinako kotxeen erakusketa, Ondare jardunaldiak, Mungiako Nazioarteko Abesbatzen Topagunea, Zezili Eguna, San Juan Gaua, Euskeraren Eguna, Bertso saioak, Literatur jardunaldiak, Atzekaldeta Festa...*

- ***Olalde Aretoa konpondu da,** eserita 500 pertsona har ditzaken balioanitzeko areto bihurtu delarik. Antzerkia, zinea, dantza zein beste lehen mailako edozein ekintza hartu ditu, Mungiarentzat, beste gauza batzuen artean, giza, ekonomi eta kultur eragile bihurtuz.*

- ***Beste gune batzuk ere berriztatu** dira: Ikasgunea, Gaztegunea, Mediateka, Txiki-txokoa... Ekintza berriak ere bultzatu dira: antzerki klaseak, dantzatzekoak, umeen artean irakurzaletasuna bultzatzeko tailerrak, udako zinea, Dantza eskola indartzea...*

- ***Haurrentzako euskal kultur programazino** garrantzitsua ere eskaini da: Udalekuak, umeentzako antzezlanak, txotxongiloak, pailazoak, diskofestak... Uda-pasak programak lana eta bizitza familiarra bateratzen laguntzen du. Arlo bi lantzen dira: artistikoa eta kirola. Honez gain, umeentzako parkeak eta jolas gunea gehiago sortu dira Aritz Bidean, Olalden, plaza bien bitartean,Agirre Jauregian, Errementarin, etab.*

### En cultura se proponía:

Promover una agenda cultural diversa y para todas las edades donde se afiancen eventos singulares en los que participan activamente las asociaciones del municipio.

### Qué hemos hecho:

- Se han impulsado **iniciativas culturales** que se basan en la preservación y fomento de nuestras **tradiciones y cultura vasca** y la participación conjunta de las numerosas **asociaciones** existentes en el municipio. Con ello conseguimos una programación cultural rica y variada. A destacar: Lore Jokoak, Mungia Folk, Basatostea, Carnavales, Santa Ageda, Feria del Libro y Disco Vasco, Feria del Coleccionismo, Jornadas de Intercambio, Mercado y Exposición de Coches Clásicos, Jornadas de Patrimonio, Certámenes Corales Internacionales, Zezili Eguna, San Juan Gaua, Euskeraren Eguna, Bertso Saioak, Jornadas Literarias, Atzekaldeta Fest...

- **Remodelación de Olalde Aretoa:** espacio cultural polivalente con aforo para 500 personas sentadas y que se ha convertido en un nuevo motor económico para el municipio.

- Se han **remodelado** además otros equipamientos como la Sala de Estudio (IMI), Gaztegunea, Mediateca, Txiki-txokoa... También se han impulsado nuevos programas como talleres de teatro y bailables, talleres de fomento de la lectura entre niños/as, cine al aire libre, refuerzo de la Dantza Eskola...

- Se ha ofrecido una importante y variada **programación cultural euskaldun para niños/as:** udalekus, parques infantiles, obras de teatro, marionetas, payasos, diskofestak... y el programa Uda-Pasak, que facilita la conciliación de la vida familiar y profesional. Además se han habilitado nuevos parques y zonas de juego infantil en Aritz Bidea, Olalde, zona de entreplazas, Agirre Jauregia, Errementari, etc.

# Dicho y hecho Esan eta egin Dicho y hecho

• ***Gazteentzako,*** *Diskogaua, Zapatu Gaztea, Asti-pasak, Mihiluze lehiaketa, kontzertu ezberdinak, Gaztea Maketa Lehiaketa, argazki lehiketa eta erreportaje lehiaketa... bultzatu dira, besteak beste. IKASIZ HAZI sariak sortu dira, Bigarren Hezkuntzako ikasleen ahalegina eta dedikazinoa saritzeko asmoagaz. Argazkilaritza digitala, automakilajea eta kurrikulum-a nola egin ikastaroak ere antolatu dira.*

• *Jai Batzordearekin herri partaidetzaren aldeko apustua egin da* ***San Pedro jaietako jai batzordea arautzen duen araudiarekin eta Txoznen ordenantzarekin.***

• *Ekintzen zabalkunderako bideak neurtzeko eta jasangarriagoak egiteko erak bilatzen saiatu gara etxeetatik, tabernetatik eta komertzioetatik zabaltzen den hileko* ***agenda bakar bat*** *sortuz. Gainera,* ***sms bidezko mezuak,*** *web orrian ipinitako iragarkiak, pantaila digitalak ere erabili ditugu.*

• *Gure ingurumenaren edertasuna, tokian-tokiko gastronomia eta produkzio metodo tradizionalak defendatu ere egin dugu. Mungia,* ***Citta-slow Bizi-Kalitatearen aldeko Hiriak*** *sarearen kide sortzaileetakoa da.*

• También para los **jóvenes** se han impulsado actividades como Diskogaua, Zapatu Gaztea, asti-pasak, Mihiluze Lehiaketa, conciertos varios, Gaztea Maketa Lehiaketa, concursos literarios y reportajes de fotografía, entre otros. Se ha creado el Premio Ikasiz Hazi Saria como reconocimiento al esfuerzo en los estudios de los jóvenes de Mungia, se han realizado cursillos de fotografía digital, de cómo elaborar un currículo,...

• Se ha apostado por la participación ciudadana en la elaboración del programa de fiestas con la creación de un **nuevo Reglamento de la Comisión de Fiestas de San Pedro.**

• Se han optimizado los recursos en la difusión de las actividades organizadas recogiendo todas ellas en una **única Agenda Cultural mensual** que se reparte en domicilios, comercios y bares, así como con un nuevo servicio gratuito de **avisos vía sms,** anuncios en la web municipal, pantallas digitales, etc.

• Se ha trabajado por el respeto y el fomento de nuestros productos locales, tradiciones y entorno natural y cultural: Mungia, miembro fundador de la **Red Cittaslow de Ciudades por la Calidad de Vida.**

## *Kirola. Proposatzern genuena:*

*Kirola sustatzea bizi kalitate osasuntsuago bat lortzeko, kirol azpiegiturak hedatzea eta giza talde eta adin tarte ezberdinei eskeintza zabal bat bermatzea.*

## *Zer egin dugun:*

• *Kiroldegiko Giharketa gimnasio berria egin da;* ***ziklismo indoor gela berria; kirol elkarteentzako batzargelak... Aldagelak*** *konpondu eta sortzeaz gain, kirol ekipamendu berriak ere prestatu dira:* ***Larreta futbol zelai berria*** *eta bere inguruan daukan atletismoko pista,* ***Rugby zelai berria, Legarda Futbol Zelaiko aldagelak eta C.D. Mungia eta S. Ciclista Valentin Urionaren egoitza berriak, Ferialekuko kirol-anitzeko eraikina, patinatzeko pista erostea, Legardako aterpea konpontzea.*** *Gainera,* ***Udal pilotalekuaren*** *konponketa egin da harmaila eta aldagela berriak sortuz eta teilatua aldatuz.*

• *Kirola osasun iturri bezala ulertuz,* ***zerbitzu, ekintza eta eskeintza*** *ezberdinak antolatu dira: Kirol astea, herriko jaietan edo bestelako jaialdietan izaten ditugun herri kirol erakusketak, Pelota txapelketak, futbitoa edo eskubaloia, saskibaloia, rugby-a edo beste era bateko kirol batzuk, Mendiko ibilaldi neurtuak, Ermitetarako ibilaldia, Herri-Krosa, Duatloia, Bizkaiko Bira paraolinpikoa...*

## En Deporte se proponía:

Fomentar el deporte como hábito de vida saludable, desarrollar infraestructuras deportivas y garantizar una oferta abierta a todas las edades y colectivos.

## Qué hemos hecho:

• Además de renovar y remodelar parte del Polideportivo de Mungia **(nuevo gimnasio, la sala de ciclismo indoor, salas de reuniones para los clubes, vestuarios, etc.),** se han creado nuevos equipamientos deportivos como: **Campo de fútbol de Larreta, nuevo campo de rugby, nuevos vestuarios del campo de fútbol de Legarda y nuevas sedes para el C.D. Mungia y la Sociedad Ciclista Valentín Uriona, Pista polivalente del Ferial,** adquisición de una **pista de patinaje,** mejora **del aterpe de Legarda...** Además se ha rehabilitado el **frontón de Mungia,** las **pistas de skate,** un **local para exposiciones de Herri-Kirolak en Olalde, equipamiento deportivo** para adultos en el Parque de Atxurizubi...

• Se han impulsado **múltiples actividades y servicios deportivos,** como Kirol Astea, Exhibiciones de Herri-Kirolak en fiestas patronales o conmemoraciones; Torneos de Pelota, Futbito y otras disciplinas como balonmano, baloncesto, rugby..., Marchas Reguladas de Montaña, marchas a las ermitas de Mungia, Herri-Krosa, Duatlón, Bira Paralímpica de Bizkaia.

EAJ PNV

# Mungiako EAJ/PNVren Hautagaiak



## Candidatura de EAJ/PNV de Mungia

Izaskun Uriagereka, Carmen Santamaria, Igor Torrontegi, Carlos Royuela, Luis Mari Elgezabal, Mirenbe Bilbao, Jokin Etxebarria, Amaia Martinez Cearra, Jon Zabala, Gaizka Ibarluzea, Jon Simon Gartzia, Isusko Eguskitzaga, Bakarne Egia, Imanol Goirigolzarri, Amaia Zurbanobeaskoetxea, Nekane Madariaga, Javier Egia, Juan Luis Goikoetxea, Aizbea Atela, Jon Arrarte.

## Agenda politikoa

**Maiatzak 5, 24:00etan:** Kanpaina hasiera.

**Maiatzak 19, 19:30tan:** Mitina Foruen Enparantzan.

Izaskun Uriagereka.
José Luis Bilbao.
Andoni Ortuzar.

**Maiatzak 20, 20:00etan:** Mitina Bilboko La Casillan.

**Maiatzak 22:** Hauteskundeak.

**5 de Mayo, 24:00h:** Inicio de campaña.

**19 Mayo, 19:30h:** Mitin en Foruen Enparantza.

Izaskun Uriagereka.
José Luis Bilbao.
Andoni Ortuzar.

**20 Mayo, 20:00h:** Mitin en La Casilla. Bilbao.

**22 Mayo:** Elecciones.

Euzko Alderdi Jeltzalea/Partido Nacionalista Vasco    Iturribide Kalea, 1-bis    48100 Mungia    Tel/Fax: 94 674 21 10

**ONENA EMATEKO GARAIA**
**EL MOMENTO DE DAR LO MEJOR**